

Antes roja que rota

JOAN MARI TORREALDAI



ALEGIA, arazorik eta istilurik ez du sortzen Urriko iraultzak, eta bai Euskadiko Independentziak. Gogoratu, bestela.

Aurtengo Apiril-Maiatz bueltan *El Mundo* egunkariak bere lantzendu-publizitatea *Independentzia* hitza erabiliz egin zuen. Beatoa eta eskandalua ekarri zituen atzetik.

Irail-Urri honetan ETBK programa-aldaketa adierazteko *Iraultza* hitza erabili du. Ez edozein iraultza, «Iraultza guztien Ama» baik, Urrikoa. Eta ez da ezer gertatu.

Ez al da esanguratsua?

José Calvo Sotelo jaunak, idanik 1935ean, esan zuen Donostiako Urumea pelotalekuan Espainia gorria hautsia baino nahiago zuela berak. Baina ez berak bakarrik, nonbait. Gero historiak eta istorioek ez dute bestelakorik erakutsi.

Eta bukatzeko: nork esan zuen harko hara, izenak izana zuela bere baitan? Izanaz ondo hustuak daude izenak orain: independentzia ez da independentzia lerro editorial propioa baino. Eta iraultza ez da iraultza, programazio-aldaketa baizik. Hitzen esanahia puztua dago, puztua eta zentzuz aldatua. Manipulatu.

Hitzen eta izenen zentzu-aldaketa hauek ez dira inozentek. Azterketa intelektuala eta komunikazioa eragotzi egiten dute, eta hori ez da sana. Slogan hauen inozentzia sinestean duena, bera da inozentea.

Opariak

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL



OPARIAK era askotakoak daitezke, guztiak dena den helburu bakar batez, oparituia izan denaren gain begirunezko zentzua helteraztea, alegia. Urtemugak, maieminduek amodioaren garra irauterazteko elkarri egiteko edozein aitaki-une, azterketak gaititu ondorengo egun beteak, hurrengo urteko merkatal-aintzinkontua prestatu aurreko aldia...guztiak dira egoki, opariren birtatez komunikazio mamitsurik eragiteko. Edozein modutan, hori arau orokorra bada ere, ez du esan nahi opariak berez horma sendoak zuzaltzen dutenik. Haien atzetik zer arraio datorren pentsa dezake oparituak eta egilearekiko susmo txarrik txikienak hankaz gora bota dezake haren asmo interesatua.

Lerro hauek idaztera jarri baino zenbait minutu lehenxeago, kutxa bat ardo jaso dut. Ekarri didanak, bere egunean mesede apalen bat egin niolakoan dagoenak, bere intentzio on guztiaz bialdu dit arabar Errioxako 8 leko uzta-oren oparituak. Bihotzez eskertzen diot... baina huts txiki bat izan duela adierazi beharrean arkitzen naitzaio: ez dut alkoholik edaten. Dena den, botelak horien bidez nire aldetik eskertuko diot, berarekiko zor nagoea iruditzen zaidan hirugarren bati. Katea ez da eten egingo. Inportanteena —Xabierek ziokkeen bezala— mezuaren edukinean baitago eta inoiz ez haren janzkeran.

Diario 16 Euskal aurrekasua

Euskal esperientzia elkar-tzailea, bigarren aldiz segidan, Madrileko gobernuan bihar bertan gerta daitekeenaren esperientzia lez har daitezke. «Espainolista» eta «nazionalista» elkar ezagutzuz joatea eta elkarrekin erantzukizuneko eginkizunak gauzatea, ona eta pozgarria da; hori sozialisten eta Eusko Alderdi Jeltzalekoen artean gertatu da oraingoan, baina beste batean sozioak PPkoak izan daitezke.

EDITORIALA / 1991-X-5

EL MUNDO

Arriskurik gabe jokatzea

Legebiltzarreko talde guz-tiek, hiritarren segurtasunari buruzko «Corcuera Legearen» proiektuaren aurka osoko emendakina aurkeztuko dute. Guztiak, bik ezik: EAJ eta CiU. (...)

«Corcuera Legearen» arazoa ez da soilik artikulu hori edo hura, legearen filosofia baizik, eta ministroak ondo merezia dauka



MATTIN/ARGIA/91-X-6

osoko emendakinaren zigorra, eta lotsa pasa behar izatea, bakar bakarrik geratu delako legearen alde.

MARIANO FERRER / 1991-X-5

DEIA Abertzaleak euskararen etsai

Zerbaitetan aurrera jo behar badugu hezkuntzan jo beharko dugu. Eta Fernando Buesak, Hezkuntzako Sailburuak, hain zuzen ere, kezka horiek agertzea ez da seinale ederra. (...)

Hezkuntzan arduradunak ezin daitezke izan horretarako eragozpen, inolaz ere. Irakasleak euskalduntzeko plangintza sakondu eta zabaldu egin beharko da. Hizkuntza berri bat ezin ikasi duten adinekoek, lanposturen bat gorde edo jubilazio-

aurreratzen bat eskaini beharko zaie. Baina gurasoen nahia eta haurren etorkizuna eragotzi lezakeen ezer ezin dezakegu onartu, irakasleok sortzen dizkigun zailtasunengatik.

Irakasle elebidunik gabe ez dago irakaskuntza elebidunik, eta irakaskuntza elebidunik gabe ez dago gizarte elebidunik. Beste edozein makalago ibiltzea onar dezakegu. Irakaskuntza ez.

M. ATXAGA / 1991-X-5

EL CORREO ESPAÑOL Ajuria Eneako beste paktua

Beharrezkoa da paktu komunitario handia, birmoldaketa prozesu berehalakoa ziurtatu, enpresetan bakea bermatu, eta gastu publikoak arindu egingo bait ditu, ekonomia horiekin

EDITORIALA / 1991-X-5

ZUZENDARIARI

Errotaburu dela eta

Errotaburu poligonoko etxebizitza baten adjudikariak bezala gure iritzia plazaratu nahi dugu arazo honetaz:

— Udal Osoko bilkuran onartu zen hitzarmenean garajeak ez ziren erosi beharrekoak eta bere prezioak 1989ko moduloari egokitzen zitzaizkion bitartean, gaur egungo gobernu-taldeak, aurrekoarekin bat datorrela, garajeak (1.500.000 pta.) eros erazten dizkigu eta, hurrez gain, 1990eko moduloarekin, hots, 150.000 pta. gehiago.

— Finantzabide-sistema: Udal-taldeak ez dio jaramonik egiten Eusko Jauriritzak 1990eko uztailaren ateratako dekretuari, honen arabera babespen ofizialeko etxebizitzaren erosleek kontratua sinatzen gehienez % 20 ordaindu behar dute, beste % 80 giltzen truke ordaintzen delarik (kreditu hipotekarioaren bidez), dekretu hori bete beharkeko izanik.

Errotaburu S.A. eta Udalen artean sinatutako hitzarmena (ez gure esleipena) dekretua baino lehenagokoa dela aipatu eta eskaintza zogarari moduan aurkeztuta gutxi gorabehera 350.000 pta., prezioaren % 45aren interesak, gehiago ordaindu beharko dugu, gutzira 100 milioi suposatzen duena eta Errotaburu S.A. edota Udalak bere gain hartu beharko dutena.

— Orain dela zazpi hilabete lehenengo komunikazioa jaso genuenetik ez dugu ikusi salerosketaren kontratua eta Etxebizitzaren Udal Patronatuko presidentek dioen bezala, urriaren 31 baino lehenago eman behar badugu sarrerako % 20, galdetzen diogu eta kontratua ordurako prest egingo den eta zenbat denbora emango diguten aztertu eta erabakitzeko.

Udal-Gobernuaren jarrera salatu nahi dugu, arazoa konpontzeko hitza eman bait zuen eta orain arte gundun bezala uzten bait gaitu, hau da, babespen ofizialeko etxebizitza baten onuradu-

nak izanik, eta horrela baliabide ekonomiko gutxiko pertsonak, ezin dugu edo oso zaila egingo zaigu etxebizitza horren ordaintzari aurre egitea, eskatzen dizkiguten baldintzetan. Ordoñez jaunari dagokionez, babespen ofizialeko etxebizitzaren adjudikariei «10 milioi oparitzaren» aldekoa ez dena, esan guri inork ez digula ezer oparitzen, etxebizitza bidezko prezioan ordaintzen dugula, espekulazio basatiak ekiditeko era bat dela eta jende behartsuenak etxebizitza duin baten aukera izan dezan balio duela, gauza guzti hauek Udalak bere gain hartu beharko litzukeenak, beti etxegileen alde egon beharrean.

Salatzen ditugu ere, «adjudikariak ez eta itxarobide bat duten pertsonak garestu» dioenaren mehatxu estialki. L.F. Hernandez jauna, adjudikari gara eta kontrakoa esan arte etxebizitza horren eskubide osoa daukagu.

L. F. ETA P. A.

DONOSTIA

PERTSONAIA



Manolo Campos

Etxarritikan oihi handi bat bota digute kanpora Manolo Camposek hasi duna bultza egin beharko da Independentzia nahia degunak pozez beraren ondora Monzon gudarik esan zuena orain datorkit gogora hau Aberri bait da lehen ere Adurretikan Ebrora.

MANOLO AROZENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria: JOAN MARI TORREALDAI

Zuzendariordeak: NEREA AZURMENDI LUZIAN ETXEHARRRETA

Kontseilari Ordezkarria: JOXE MIEL ZUMALABE

INAKI URRIA

Gerentea: INMA GOMILA

Publizitate: KORNELIO ROTETA



Batzorde Parekidea: 72564 E Lege Gordailua: SS 80090

HELBIDEAK

Egoitza soziala, Pulizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1 / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57
Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabilioak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93
Araba: San Antonio, 20-1.ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73
Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13.esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77
Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-4.eskuma. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60
Lapurdi / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11